Itziarko
Auzo Udala

2021IKON0002

ANTSORREGI - ARRIOLA BIDEA ASFALTATZEKO LANAK

Espediente zenbakia: 2021IKON0002

BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA

I. ALDERDI OROKORRAK ETA KONTRATUAREN KONFIGURAZIOA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza agiri honen arabera egingo den kontratuaren xedea hauxe da: ANTSORREGI - ARRIOLA BIDEA ASFALTATZEKO obrak egitea, espedienteko dokumentazio teknikoarekin bat etorrita; dokumentazio horrek kontratu-balioa du.

CPV kodea: 45233251-3 Birzolatze-lanak

Sortatan banaketa: EZ

Kontratuaren xedean jasotako prestazioak bereizita emateak zaildu egingo luke ikuspegi teknikotik behar bezala gauzatzea, elkarren artean lotutako prestazioak baitira, eta, beraz, komeni da kontratista bakar batek ematea.

Era berean, adierazten da kontratuaren edukiak enpresa txiki eta ertainak lehiatzeko aukera ematen duela; izan ere, ETEen gaitasunari dagozkion sektore espezializatuetara egokituta dago.

2. KONTRATATU BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA

Memorian jasota dago zer arrazoirengatik egingo duen administrazio honek agiri honen xede den kontratua.

3. EGIKARITZEKO EPEA

Kontratu honen xede diren obrak egikaritzeko guztirako epea hau da: LAU (4) ASTE kontratua sinatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Kontratista berandutza-egoeran dagoela joko da aipatutako epea behin igarota, eta horretarako ez da beharrezkoa izango Administrazioak aldez aurretik agindeirik egitea.

4. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

4.1.- Hauxe izango da lizitazioaren oinarrizko aurrekontua: 104.209,20 euro, gehi BEZari dagozkion 21.883,93 euro; guztira, 126.093,13 euro. Aurrekontua hobetu dezakete lizitatzaileek.

Kalkulua egiteko kontuan hartutako kostuak eta gastuak memorian adierazitakoak dira.

Kontratuaren prezioaren barruan egongo da unitateko prezioen zerrenda bat, behar bezala banakatua. Prezio horiek egongo dira indarrean kontratuaren egikaritzeak dirauen bitartean. Lizitatzaileak unitateko preziorik aurkezten ez badu, ulertuko da aurrekontukoak hartzen dituela oinarritzat, bere prezio-proposameneko beheratze-ehuneko bera kenduta.

4.2.- Kontratuaren balio zenbatetsia 104.209,20 euro da, BEZa aparte. Horrela kalkulatu da balio zenbatetsia:

Lizitazio aurrekontua (BEZa aparte) 104.209,20.- €

Aurreikusitako aldaketen zenbatekoa (BEZa aparte) 0 - €

BALIO ZENBATETSIA GUZTIRA 104.209,20- €

5. FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, aurreikusita dago urteko aurrekontuan partida zenbakia 1 0000.601.150.00.03. izango da.

6. ORDAINKETA-ARAUBIDEA

SPKLren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren arabera, eta dagokion fakturan, honako hau adierazi behar da: kontratazio-organoa Itziarko toki entitate txikiko Alkatetza dela; kontabilitate publikoaren arloan eskumena duen organoa udal Kontuhartzailetza dela.

DIR3 kodea: L01200296

Ziurtagiriak erregistroa: Debako Udalaren erregistro elektronikoa.

Fakturak aurkezteko erregistroa: Gipuzkoako Foru Aldundiaren faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorra.

7. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honetan, ez dira prezioak berrikusiko, SPKLren 103.1 artikuluari jarraituz.

8. BERMEAK

8.1.- Behin behineko bermea: ez dagokio.

8.2.- Behin betiko bermea: esleipen prezioaren %5a, (BEZik gabe).

8.3.- Berme osagarria: ez da ezartzen.

8.4.- Harrera partzialak izanez gero, kontratistak **EZIN** izango du bermearen zati proportzionala itzultzeko edo ezerezteko eskatu.

8.6.- Bermea **Itziarko Auzo Udala**ren alde eratuko da (IFZ: **P2000030C**)

Behin betiko bermea eratzeko epea 17. klausulan aipatutako eskakizunean adierazitakoa izango da. SPKLren 108. artikuluan ezarritako bitartekoetatik edozein erabiliz jarri ahal izango da bermea., eta bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabil daitezke bermea jarri dela egiaztatzeko. Baldintza hori lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik betetzen ez bada, administrazioak ez du adjudikazioa beraren alde emango.

Bermea itzultzeko edo ezeztatzeko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 111. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, berme aldia amaitu eta esleipendunak kontratuan ezarritako betebehar guztiak bete ondoren.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

9. ESLEIPEN-PROZEDURA

Kontratu hau prozedura ireki sinplifikatuaren bidez esleituko da, SPKLren 159. artikuluko 1. apartatutik 5. apartatura artean ezarritakoari jarraituz; lege horretan eta hura garatzeko arauetan ezarritako jardunei jarraituko zaie adjudikazioa izapidetzean.

10. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

Lizitazio hau bitarteko elektronikoz izapidetuko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoari jarraituz. Horrenbestez, udalaren eta lizitatzaileen arteko harremana ere bide horien bitartez egingo da.

11. JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

Espediente honi lotutako jakinarazpen eta komunikazio guztiak bitarteko elektronikoz egingo dira, KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN/CONTRATACIONPUBLICA EN EUSKADI plataforman dagoen lizitazio elektronikoko sistemaren bidez.

Jakinaraziko dira esleipen-erabakia eta SPKLren 44.2 artikuluaren b) letran azaltzen diren izapide-egintzak.

Komunikaziotzat joko dira argibide-eskaerak, akatsak edo omisioak zuzentzeko errekerimenduak, agiri honetan aurreikusitako dokumentuak aurkezteko errekerimenduak eta SPKLren 44.2 artikuluaren b) letran sartzen ez diren bestelako izapide-egintzak.

Jakinarazpena eskuragarri jarri eta hamar egun naturalen epean hartzaileak onartu ez badu edo uko egin badio, iraungitzat joko da, eta betetzat joko da jakinarazteko izapidea.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko eta juridikoek, baldin eta ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen teknikoa edo profesionala badituzte, ez badaude sartuta SPKLren 71. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetako batean ere, eta Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroan inskribatuta badaude, SPKLren 159.4 artikuluan prozedura ireki sinplifikaturako eskatzen den bezala. Kaudimena egiaztatzeko eta ebaluatzeko, 17. klausulan ezartzen diren bitartekoak erabiliko dira.

Halaber, nork bere izenean edo, horretarako emandako ahalorde askietsiaren bidez, baimendutako pertsona batek ordezkatuta har dezakete parte. Pertsona juridiko bateko kideren bat aritzen bada haren ordezkari, agiri bidez frogatu beharko du baduela horretarako ahalmena. Kasu batean zein bestean, ordezkariari ere eragiten diote lehen aipatutako kontratatzeko ezgaitasun horiek.

Pertsona horiek, halaber, kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa gauzatzeko behar den enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki behar dute.

13. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

Honako hauek dira kontratua adjudikatzeko oinarri izango diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta haien haztapena:

Irizpidea	Haztapena
Prezioa:	75%
Epea:	25%

Irizpide horiek honako formula hau aplikatuz baloratuko dira:: LP = Eb/El x H

Non:

LP: lizitatzailearen puntuazioa.

Eb: eskaintzarik baxuena.

El: baloratzen ari den lizitatzaileak eskainitako prezioa edo epea.

H: haztapenaren balio absolutua (75 edo 25)

Eskaintza nabarmenki baxuegitzat joko dira onartutako eskaintzen batez bestekoa baino %25 txikiagoak direnak prezioari dagokionez, eta aldi berean, %75 txikiagoak badira denborari dagokionez

14. KONTRATAZIO-MAHAIA

Honako kide hauek osatuko dute kontratazio-mahaia:

- Mahaiburua: Itziarko auzo udaleko Alkatea, Maider Lopetegi Albizu, edo izendatzen den ordezkoa.
- Mahaikideak:
  - Udal idazkaria, Jorge González Endemaño, edo izendatzen den ordezkoa.
  - Udal kontu-hartzailea, Jesus Mendizabal Mendizabal, edo izendatzen den ordezkoa.
  - Udal arkitekto teknikoa, Zuriñe Artetxe Ballejo edo izendatzen den ordezkoa.

- Mahaiaren idazkaria: Udal Idazkaritzaren teknikaria, Garbiñe Agirregomezkorta Lekube, edo izendatzen den ordezkoa.

15. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK, ETA KLAUSULA-AGIRIAK ESKURATZEKO BIDEA

Lizitazio hau Udal honen kontratatzaile-profilean argitaratuko da, zeina Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman baitago.

Euskadiko Kontratazio Publikoko kontratatzailearen profilerako sarbidea:

https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

Debako Udalaren kontratatzailearen profilerako sarbidea:

https://www.deba.eus/eu/tramiteak/kontratatzailearen-profila

Kontratatzailearen profilean eskuratu ahal izango dira baldintza agiriak eta dokumentazio osagarria.

Proposamenak bitarteko elektronikoz aurkeztu behar dira plataforma horren bidez, **HOGEI (20) EGUN NATURALEKO EPEAN**, argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera, epearen azken eguneko 12:00ak baino lehen.

- Lizitazio elektronikoari buruzko kontsultei erantzuteko kontaktua: 945 016 298.
- Agiri honen I. eranskinean jasotzen dira lizitazio elektronikorako jarraibideak.

Lizitatzaileek baldintza-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruz informazio gehigarria eskatzen badute, beranduenez proposamenak jasotzeko ezarritako azken eguna baino sei (6) egun lehenago emango zaie informazio gehigarri hori, baldin eta gutxienez proposamenak jasotzeko muga-eguna baino hamabi (12) egun lehenago egin badira eskariak.

SPKLren 136. artikuluaren 2. eta 3. ataletan xedatutakoaren arabera, klausula-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeetan entregatzerik izan ez bada eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, ukitutako hautagaiek eskaintzak egiteko behar duten informazio guztia jasotzeko egokitzat jotzen den adina.

- Alderdi teknikoei eta juridikoei buruzko kontsultei erantzuteko kontaktua: gagirregomezkorta@itziar.eus

Lizitazio-prozedura honetan, ez da onartuko eskaintzarik gorago adierazitako bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu ezean. Horretarako, ezinbesteko baldintza da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataformako edo Sektore Publikoko Kontratazio Plataformako erabiltzaile erregistratua izatea.

Eskaintza bateko dokumenturen bat ezin bada behar bezala ikusi, gorabehera hori jakinarazi eta gehienez 24 orduko epea izango du lizitatzaileak fitxategi akastunean zegoen dokumentua formatu digitalean aurkezteko. Geroago aurkeztutako dokumentu horrek ezin izango du aldaketarik izan eskaintzan aurkeztutako jatorrizko dokumentuaren aldean. Kontratazio-organoak edo kontratazio mahaiak ikusten badute dokumentuak aldaketaren bat izan duela, baztertu egingo da lizitatzailearen eskaintza. Zuzentzeko aukera hori ez zaie aplikatuko, eta baztertu egingo dira, aurkeztutako fitxategietako edozeinetan birusen bat duten eskaintzei, baldin eta birus hori irakurtzea edo haren edukira sartzea eragozten badute.

Proposamenek administrazio-klausula partikularren agiri honetan ezarritakoa bete beharko dute. Proposamena aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzea klausula edo betekizun horiek, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe, eta kontratazio mahaiari eta kontratazio-organoari baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko eta Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Halaber, ezin izango du aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez inolako proposamenik aurkeztu, baldin eta aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan egon ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko lizitatzaile horrek izenpetutako proposamenik.

Lizitatzaileek konfidentzial izenda dezakete eskaintzak egitean berek emandako informazioaren parte bat, informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legeriak xedatutakoa eta SPKLn adjudikazioaren publizitateari buruz eta hautagaiei nahiz lizitatzaileei eman behar zaien informazioari buruz dauden xedapenak gorabehera; bereziki, hori egin ahal izango dute beren sekretu tekniko edo komertzialei eta haien alderdi konfidentzialei dagokienez. Udalak ezin izango du informazio hori zabaldu lizitatzailearen baimenik gabe.

16. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Lizitatzaileek **GUTUN-AZAL ELEKTRONIKO** bakarra aurkeztu beharko dute, izenburuan **«GAITASUNA, KAUDIMENA ETA ESLEIPEN-IRIZPIDEAK»** dioena; lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta egon behar du, eta honako dokumentu hauek izango ditu:

a) **Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko datuak**, agiri honen II. eranskinaren ereduaren arabera.

b) **Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB)**. SPKLren 140. eta 141. artikuluetan aurreikusiarekin bat, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, III. eranskinean jasotako jarraibideekin bat beterik, eta lizitatzaileak edo honen ordezkariak sinatuta eta han adierazitako formulario eredura egokituta.

Enpresa lizitatzaileak beste entitate batzuen kaudimena eta bitartekoak baliatzen dituenean, horietako bakoitzeko EKAB bat aurkeztu beharko da.

c) **Aldi Baterako Enpresa Elkartea.**

Bi enpresa edo gehiago aldi baterako enpresa-elkartean (ABEE) parte hartu nahi badute, dokumentu pribatu bat aurkeztu beharko dute, elkartea osatuko duten enpresen izenak eta inguruabarrak eta bakoitzaren partaidetza adierazita. Horiez gain, esleipendun gertatuz gero ABEEa formalki eratzeko konpromisoa bere gain hartzen dutela adierazi beharko dute (SPKLren 69. artikulua eta APKLEOren 24. artikulua). Agiri hori elkartea osatzen duen enpresa bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute. Agiri honen IV. eranskinean jasotzen da ABEEa eratzeko konpromisoaren eredua.

Horrelakoetan, ABEEa osatuko duen enpresa bakoitzak bere EKAB aurkeztu beharko du.

d) **Erantzukizunpeko adierazpena, giza baliabideak eta baliabide materialak kontratuaren betearazpenari atxikitzeko**.

Agiri honen V. eranskinean jasotzen da eredua.

e) **Erantzukizunpeko adierazpena enpresa taldeari buruzkoa**. Adierazpen honek, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako baldintzetan lizitatzailea parte den enpresa taldea eta talde bereko sozietate guztiak hartuko ditu.

Ezein enpresa-taldetakoa ez bada, adierazpenak horixe adierazi beharko du.

Agiri honen VI. eranskinean jasotzen da horretarako eredua.

f) **Lizitatzaileen izaera konfidentzialeko dokumentu eta datuei buruzko adierazpena.** Enpresa lizitatzaileek, hala dagokionean, adierazi beharko dute

aurkeztutako zer dokumentu administratibo eta tekniko eta zer datu diren, beren ustez, konfidentzialtzat jotzeko modukoak.

Horrez gain, zirkunstantzia hori (gain inprimatuta, bazterrean edo beste edozein modutan) horrela adierazitako dokumentuan bertan jaso beharko da.

Adierazpen hau egin ezean, dokumentu edo datu konfidentzialik ez dagoela ulertuko da.

Agiri honen VII. eranskinean jasotzen da eredua.

g) Esleipen-irizpideei buruzko dokumentazioa.

g.1.- Proposamen ekonomikoa eta egikaritze-epearen proposamena, agiri honen VIII. eranskinean jasotako ereduari jarraituz.

g.2.- Unitateko prezioen zerrenda, hala badagokio.

17. AURKEZTUTAKO AGIRIAK IREKI ETA PROZESATZEA; ENPRESAK AUKERATZEA, ETA ESKAINTZAK BALIOESTEA

Klausula honen edukian ulertu behar da "ekitaldi publikoa" aipatzen denean, publiko izaera ematen zaiela interesatuek saioan bitarteko elektronikoen bidez sartzeko duten aukerari, dela "streaming" bidez (zuzeneko emanaldia), dela kontratugilearen profilean argitaratutako grabazio bidez.

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, honako jardun hauek egingo dira:

1) Gutun-azal elektronikoa ireki.

Kontratazio-mahaiak, ekitaldi publikoan, eta kontratatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan, gutun-azala elektronikoki irekiko du; hartan jasotako dokumentazioa egiaztatuko du, kontratu hau eskuratzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko; eta proposamen ekonomikoari buruzko datuak eta lizitatzaileek eskainitako epea jakinaraziko ditu.

Dokumentazio horretan zuzendua daitezkeen akatsak edo omisioak atzemanez gero, mahaiak gehienez ere hiru (3) egun balioduneko epea emango du akatsa edo omisioa zuzentzeko behar den dokumentazioa aurkez dezaten. Erabakia kontratatzailearen profilaren bidez jakinaraziko zaie interesdunei.

Ekitaldi publiko horren ondoren, baina modu pribatuan, mahaiak honako jardun hauek egingo ditu:

1.- Baztertu egingo ditu agiri honen eskakizunak eta betebeharrak betetzen ez dituzten eskaintzak, halakorik badago.

2.- Formulak erabiliz zenbatestekoak diren irizpideak balioetsiko ditu.

3.- Eskaintza bakoitzak guztira lortutako puntuazioa ezarriko du, eta puntuazio handienetik txikienera sailkatuko ditu eskaintzok.

4.- Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen aldeko esleipen-proposamena egingo du.

Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza nabarmenki baxuegia dela uste izanez gero, SPKLren 149. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituko dio; dena den, lizitatzaileak bere eskaintza justifikatzeko epea ezin izango da izan 5 egun baliodun baino luzeagoa izan, dagokion komunikazioa igortzen zaionetik.

Egindako jardun guztien berri emango da espedientean, eta aktetan jaso, nahitaez idatzi beharko baitira aktak.

5.- Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistrora edo Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialera joko du, eta kontratua esleitzeko proposatutako lizitatzailearen datuak egiaztatuko ditu: haren izaera, gaitasuna, kaudimena eta kontratatzeko debekurik ez izatea.

6.- Komunikazio elektronikoaren bidez, kontratua adjudikatzeko proposatutako lizitatzaileari eskatuko dio zazpi egun balioduneko epean (komunikazioa igortzen zaionetik) jarduketa hauek egin ditzan edo dokumentu hauek eman ditzan:

a. Behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria.

b. Hala badagokio, lizitatzailearen esku beharrezko diren baliabideak jarriko dituzten erakundeen konpromisoa SPKLren 75.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

c. Dokumentazio egiaztagarria, kontratuaren egikaritzean erabiltzeko edo atxikitzeko konpromisoa hartu zuen bitartekoak benetan dauzkala egiaztatzeko, SPKLren 76.2 artikuluaren arabera.

d. Hala badagokio, kaudimenari buruzko beste edozein dokumentazio, dagokion lizitatzaile-erregistroan ez badago. Horri dagokionez, gutxieneko kaudimen-eskakizun hauek bete behar dira kontratu hau lortzeko:

d.1. **Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa:** kontratuari dagokion esparruko urteko negozio-bolumena, eskuragarri dauden azken hiru urteetako ekitaldi

onenari dagokiona, enpresa eraketa-dataren edo jardueren hasieraren eta eskaintzak aurkeztearen arabera, 156.313,8 euroko edo gehiagoko zenbatekoan.

d.2. **Kaudimen teknikoa edo profesionala:** azken bost urteetan burututako obren zerrenda, ondo burutu izanaren egiaztagiriarekin; ziurtagiri horietan adieraziko dira obren zenbatekoa, datak eta lekua, eta zehaztuko da lanbidearen arauen arabera egin ziren ala ez, eta ondo amaitu ziren ala ez.

d.3. **Sailkapena:** adierazitako kaudimen-betekizunak ordezteko, honako sailkapen hau eduki behar da: G taldea, 4 azpitaldea, 2. kategoria.

Kaudimen-betekizun horiek egiaztatzeko, kontsulta egingo zaie Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroari, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialari, edo Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialei edo datu-base nazionalari, kasu honetan, baldin eta doan eskura badaitezke.

Kaudimenaren egiaztapena, halaber, lizitatzaileek beren eskaintzetan zehazten duten bitarteko material edo pertsonalekin osatuko da. Bitarteko horiek kontratuari atxikitzea funtsezko kontratu-betebehartzat joko da; horrenbestez, SPKLren 76.2 artikuluan xedatutakoaren babesean, hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat jo ahal izango da 211.1.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako. Hori zuzenean egiaztatuko da, nahiz eta lizitatzaileek klausula honi dagokion erregistro ofizialen baten egiaztagiria edo Europar Batasuneko ziurtagiria aurkeztu.

d.4. **Aseguruak.**

Kontratistak nahitaezko aseguruak kontratatuta izan beharko ditu, bai eta jarraian aipatzen direnak ere, exekuzio-epe eta berme-epe osoan.

d.4.a. <u>Erantzukizun zibileko asegurua.</u>

Alderdi orokorretan, patronalean, gurutzatuan eta amaitutako lanetan, aseguratutzat kontratista, azpikontratistak eta botere adjudikatzailea hartuta, obren sustatzaile gisa, eta gutxienez 104.209,20 euroko estaldurarekin.

2) Errekerimendua betetzen ez bada

Esleipendun izateko proposatutako lizitatzaileak horretarako emandako epean behin betiko bermea eta gainerako dokumentuak aurkezten ez baditu, puntuazioan dagoen

hurrengo hautagaiaren aldeko esleipen-proposamena egingo da, eta epe egokia emango zaio aipatutako behin betiko bermea eratzeko.

18. ADJUDIKAZIOA ETA FORMALIZATZEA

Kontratazio-organoak kontratuaren adjudikazioa ebatziko du, lehenengo sailkatuari eskatutako dokumentazioa jaso eta bost egun balioduneko epean.

Lizitatzaile guztiei emango zaie adjudikazioaren berri, eta kontratatzaile-profilean argitaratuko da.

Kontratua perfekzionatzeko, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den administrazio-agiria formalizatuko da. Dokumentu hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotan aurkezteko. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak.

Esleipenaren jakinarazpenean adierazten den epean (gehienez ere 15 egun baliodun), esleipendunak agertu beharko du administrazio-agiri batean kontratua formalizatzeko, eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen kontratua egikaritzeko epea.

19. KONTRATUA EZ EGITEKO ERABAKIA ETA PROZEDURAN ATZERA EGITEA

SPKLren 152. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratazio-organoak kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko erabakia hartu ahal izango du, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak direla eta. Halaber, prozeduran atzera egin ahal izango du baldin eta zuzendu ezin daitekeen arau-hausteren bat atzematen badu kontratua prestatzeko arauei edo adjudikazio-prozedura erregulatzen duten arauei dagokienez. Kontratua ez egiteko erabakia hartzekotan edo prozeduran atzera egitekotan, kontratua formalizatu aurretik egin behar da, betiere aipatutako artikuluan ezarritako betekizunen arabera.

III. KONTRATUA EGIKARITZEA

20. KONTRATUA EGIKARITZEAREN ARAUBIDE OROKORRA

Kontratua sinatu eta hurrengo egunean hasiko da egikaritzen obra-kontratua.

Kontratistaren gain eta galorde joango da kontratuaren egikaritzea, eta kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obretan eragindako galera, matxura edo kalteengatik, salbu eta SPKLren 239. artikuluan aurreikusitako ezinbestezko kasuetan.

Nolanahi ere, obrak egitean, zorrozki beteko dira agiri honetan ezarritako klausulak eta agiri honi atxikitako zehaztapen teknikoak, bai eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakoa eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritakoa ere. Bereziki, kontratua egikaritzean, administrazioak lanak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuko ditu, eta ahalmen horiek idatziz zein ahoz erabili ahal izango ditu.

Esleipendunaren erantzukizuna izango da zerbitzuari lotutako prestazioen kalitatea, bai eta kontratua betetzerakoan Administrazioarentzat edo hirugarren pertsonentzat huts, akats, metodo desegoki edo ondorio okerretatik sortzen diren ondorioak ere.

Pertsona edo enpresa kontratistak lantalde eta langile egokiekin egin beharko du zerbitzua, eta lanen martxak noiznahi sortzen dituen premiei behar bezala erantzun. Bere eskaintzan aipatutako bitarteko teknikoak ere jarriko ditu eta, oro har, lanak ondo egiteko behar diren guztiak.

Nolanahi ere, kontratistak ordainduko ditu kalte-galerak, aseguru polizetako mugak gainditzen dituen zatian eta polizek estali gabeko ondasunetan eta arriskuetan.

Administrazioak zehaztuko du kontratistaren prestazioa hori egikaritu eta betetzeko jarritako baldintzetara egokitzen ote den, eta, hari eskatuko dio, hala badagokio, kontratupeko prestazioak egin ditzala eta haiek jasotzean hautemandako akatsak konpondu ditzala. Baldin eta egindako lanak ez badira egokitzen kontratupeko prestaziora, kontratistari egoztekoak diren akats edo hutsen ondorioz, prestazioari uko egin ahal izango dio, eta salbuetsita gelditzuko da hari ordaintzeko betebeharretik edo, hala badagokio, eskubidea izango du hari ordaindutako prezioa berreskuratzeko.

Kontratistari edo haren agindupeko pertsonaren bati egotz dakiokeen egintza edo ez-egite baten ondorioz arriskuan jartzen bada kontratua egoki egikaritzea, administrazioak agindu ahal izango du beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela kontratuaren egikaritze egokia lortzeko edo berrezartzeko.

Lizitaziora aurkezten diren enpresek borondatez onartzen dute lizitazio, adjudikatze eta betetze prozesuetatik eratorritako datu guztiei gardentasuna ematea.

21. KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK

SPKLren 202.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratu hau egikaritzeko honako egikaritze-baldintza berezi hauek eskatuko dira.

Baldintza horiek funtsezko kontratu-betebeharra dira; horrenbestez, SPKLren 201 artikuluan xedatutakoaren arabera, hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat jo ahal izango da SPKLren 211.1.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

21.1.- Lan eta gizarte arloko betebeharrak eta ingurumenaren babesaren arlokoak

1.- Kontratistak lan, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun nahiz osasun eta ingurumenaren babes arloetako lege, erregelamendu eta hitzarmen xedapen guztiak bete behar ditu, baita klausula-agiri hauetan xedatutakoak ere.

2.- Kontratistak kontratua egikarituko duten langileei aplikatuko dizkien lan baldintzak izango dira enpresa kontratistaren jarduera kokatuta dagoen sektorearen maila txikieneko esparruko azken hitzarmen kolektiboan ezarritakoak; betiere, eragotzi gabe indarrean egon daitezkeen eta aipatutako hitzarmena hobetzen duten enpresaren beste hitzarmen edo itun batzuek ezarritakoak.

Kontratuaren indarraldi osoan zehar, enpresa kontratistak kontratura atxikitako langileen lan baldintzak mantendu beharko ditu hitzarmen kolektibo aplikagarria kontuan hartuta, eta ezingo ditu lan baldintza horiek okerragotu; nahiz eta aurrerago hitzarmen horren indarraldia amai daitekeen, lan hitzarmenen indarraldiaren amaierari buruz legeetan edo hitzarmenetan aurreikusitakoa betez.

Kontratistak zehaztu beharko du kontratuaren objektu den jarduera egiten duten langileei zer hitzarmen kolektibo aplikatuko dien. Horretarako, kontratua adjudikatu ondoren, kontratu horri atxikitako langileei aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz ahalik eta informazio gehien aurkeztu beharko du.

3.- Esleipendunak, kontratatutako jarduerari hasiera eman aurretik, kontratua egikaritzera bideratutako langileen zerrenda, eta, aldi berean, egiaztatu beharko du haiek Gizarte Segurantzan alta emanda eta afiliatuta daudela.

4.- Azpikontrataziorik egiten bada, klausula honetan xedatutakoa bete beharko du enpresa azpikontratistak. Azpikontratatutako jarduerari hasiera eman baino lehen, enpresa kontratistak egiaztatuko du azpikontratatutako enpresako langile guztiak Gizarte Segurantzan izena eta alta emanda daudela, eta horren berri emango dio kontratazio organoari.

5.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari

jasanaraziko dizkio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

21.2.- Hizkuntza betebeharrak

21.2.1.- Debako Udalaren eta kontratistaren arteko harremanetan euskara erabiliko da normalean.

Ondorio horietarako, "normalean euskara erabiltzea" honako hau da:

a) Ahozko komunikazioetan, euskaraz dakiten langileek euskaraz hitz egingo dute Debako Udalarekin, zein Itziarko auzo udalarekin. Udalak euskaraz egiten badie kontratuaren exekuzioari atxikitako langileei, eta ez badute hizkuntza hori behar bezala ezagutzen, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu beharrezko baliabideak edo euskarazko hizkuntza-gaitasuna duten langileak, udalarekiko harremana euskaraz garatu ahal izateko.

b) Idatzizko komunikazioak euskaraz idatziko dira, eta, salbuespen gisa, euskaraz eta gaztelaniaz.

21.2.2.- Euskararen erabilpena bermatuko da errotuluetan, argitalpenetan, seinaleztapenetan, abisu eta komunikazioetan, eta, oro har, herritarrekiko harremanetan.

21.3.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun arloko betebeharrak

21.3.1.- Enpresa adjudikaziodunak, kontratua egikaritzeko orduan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko neurriak ezarri beharko ditu arlo hauetan: lanpostua eskuratzeko aukerak; sailkapen pertsonala; sustapena; iraupena; prestakuntza; lansariak; kalitatea eta lan egonkortasuna; jardunaldiaren iraupena eta antolaketa; baita kontratuari atxikitako langileen familia bizitza, lan bizitza eta bizitza pertsonala uztartzeko neurriak ere, hain zuzen ere martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoak xedatutako moduan.

21.3.2.- Enpresa adjudikaziodunak hizkera ez-sexista erabili beharko du kontratu hau egikaritzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan. Halaber, emakumeen bazterketa iradokitzen duten irudiak edota estereotipo sexistak ekidin beharko ditu, eta berdintasun balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta genero rol zein identitateen aniztasuna sustatu beharko ditu.

21.3.3.- Enpresa edo entitate adjudikaziodunak bermatuko du sexu jazarpena eta sexu arrazoiek eragindako jazarpena prebenitzeko behar diren neurriak hartzen direla, hamar langiletik gora arituko diren kontratuetan.

21.4.- Laneko segurtasun eta osasun esparruko betebeharrak

21.4.1.- Laneko segurtasun eta arriskuen prebentzioko esparruan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu enpresa kontratistak, baita hitzarmen kolektibo aplikagarritik eratorritakoak ere.

21.4.2.- Enpresa kontratistak nahitaezko edo beharrezko laneko segurtasun eta higiene neurriak hartu beharko ditu, kontratu honen objektuari lotuta dauden langileen osotasunarentzat eta osasunarentzat sor daitezkeen arriskuei aurrea hartzeko.

21.4.3.- .Enpresa kontratistak beste enpresa bat azpikontratatzen badu kontratuaren objektuaren atal bat egiteko, enpresa kontratistak bermatu beharko du azpi kontratistak laneko segurtasun eta osasun esparruko betebehar guztiak betetzen dituela, eta zehazki, prebentzio jardueren koordinazioari eta beharrezko prebentzio baliabideak eskuragarri jartzeari buruz, araudiak xedatutakoa betetzen dela.

Enpresa kontratistak bermatu beharko du jarduera gauzatzeko eta lanen zuzendaritza zuzenean egiteko azpiegitura eta baliabide nahikoa dituela enpresa azpikontratatuak.

Entitate kontratatzaileak zainduko du kontratistek eta azpi kontratistek lanen arriskuei aurrea hartzeko araudia betetzen dutela. Horretarako beharrezkoa den edozein neurri hartu ahal izango du.

21.4.4.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

21.5.- Baimen eta lizentzien kudeaketaren inguruko betebeharrak

21.5.1.- Lanak behar bezala egiteko behar diren baimen edo lizentzia guztiak lortzea enpresa kontratistaren erantzukizuna eta kontua da, non eta kontratazio organoak bere kasa kudeatzea erabakitzen ez duen; eta haien gaineko eskumena dutenek ezarritako baldintzak eta ezaugarriak bere kontura bete behar ditu kontratistak.

21.5.2.- Baimenak edo lizentziak eskuratzeak tasa, fidantza edo bestelako gasturen bat baldin badakar, enpresa kontratistak ordaindu edo gordailatuko ditu.

22. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA EGIKARITZEN DEN BITARTEAN HIRUGARRENEI EGITEN ZAIZKIEN KALTEAK DIRELA ETA

SPKLren 196. artikuluan xedatutakoaren arabera, obrak egikaritzen diren bitartean, kontratistak erantzukizuna izango du beraren ardurapeko langileen egintza, ez-egite edo zabarkerien ondorioz edo obrak behar bezala ez antolatu, babestu edo seinaleztatzearen ondorioz edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko zein pribaturi eragiten zaizkion kalte eta galera guztiena.

23. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, ondoren adierazten diren kasu eta baldintzatan, eta eragin-esparru eta mugekin.

a) Kasuak: proiektuaren obra unitateak handitzea.

b) Gehienez eragin diezaioketen kontratuaren prezioaren ehunekoa: %20

Dena den, SPKLren 203. artikulutik 207. artikulura bitartean eta 242. artikuluan esanbidez jasotako kasuetan eta baldintzetan ere aldatu ahal izango da kontratua, horrekin aldatzen ez badira lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak.

Gorago adierazitako aldaketa horiek bete beharrekoak izango dira kontratistarentzat.

SPKLren 242.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, proiektuan ez datozen obra-unitate berriak sartu behar badira kontratuko aldaketak direla-eta, administrazioak finkatuko ditu aldaketa horien prezioak, eta, kontratistak onartzen ez baditu, kontratazio-organoak aukera izango du obra-unitate horiek beste enpresaburu batekin kontratatzeko finkatutako prezioetan, edo obrak zuzenean egikaritzeko.

24. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Ez da aurreikusten enpresa esleipendunak izaera pertsonaleko datuak atzituko dituenik.

Nolanahi ere, edozein arrazoi dela-eta, enpresa esleipendunak, haren zerbitzura dauden pertsonek edota hark azpikontratatutako pertsonek edo erakundeek Debako Udalaren datu pertsonalak atzituko balituzte, bete beharko dute Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan xedatutakoa bete beharko du. Erregelamendu hori pertsona fisikoen babesari buruzkoa da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta 95/46/EE

Zuzentaraua indargabetzen du. Era berean, datu pertsonalen babesa eta eskubideen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa.

Enpresa kontratistak edo bere zerbitzuko pertsonek edo berak azpikontratatutako pertsonak zein entitateek klausula honen arabera beren gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, Debako Udala edozein kopuru ordaintzera zigortzen badute, ordaindutako zenbatekoa kontratistari jasanaraziko zaio, eta, ondorio horietarako, Debako Udalak egoki eta komenigarriak diren edozein ekintza administratibo edo judizial egiteko eskubidea izango du, ordaindutako zenbateko osoa erabat berreskuratu arte.

25. OBRAK HARTZEA ETA BERMEALDIA

Obrak amaitzen direnetik hilabetera, gehienez, obrak hartzearen egintza formal eta positiboa egingo da, eta egintza horren akta idatziko da.

Halaber, urtebeteko (1) berme aldi epea ezartzen da, harrera formalaren egunetik aurrera, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako ondorioetarako.

Hala ere, berme aldia amaitu eta gero, kontratistak kontratua bete ez duelako ezkutuko akatsen ondorioz obra hondatzen bada, kontratistak izango du kalte eta galeren erantzukizuna, hamabost (15) urtez, obra hartzen denetik. Epe hori igarota ez bada inolako kalte edo galerarik agertu, guztiz azkenduko da kontratistaren erantzukizuna.

26. KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK KONTRATISTARI EZARRIKO ZAIZKION ZIGORRAK

a) Kontratua egikaritzeko epeak ez betetzea

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, berandutzen bada kontratua egikaritzeko epean (epe osoa zein, halakorik bada, epe partzialak), administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea (eta adjudikaziodunak bermea galdu), edo honako zigor hau ezartzea: zerbitzua behar bezala ematen berandutzen den eguneko 0,60 euro kontratuaren prezioko 1.000 euroko (BEZa aparte).

Berandutzeagatik ezartzen diren zigorren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 5en multiplo batera heltzen den bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua suntsiarazteko, edo, bestela, kontratua egikaritzen jarrai dadin agintzeko, zigor gehiago ezarrita.

b) Prestazioen egikaritzea ez betetzea

Kontratistak ez badu betetzen kontratuan zehaztutako prestazioen egikaritze partziala, eta horren errua berari egozten ahal bazaio, administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea, edo, bestela, kontratuaren prezio osoaren % 10en baliokidea den zigorra ezartzea.

Prestazioa oker gauzatzen bada, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango ditu; horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren % 50.

c) Ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak ez betetzea

Kontratistak ez baditu betetzen ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak, batez ere soldatak ordaintzen behin eta berriro atzeratzen bada edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritakoak baino soldata-baldintza okerragoak doloz eta era larrian aplikatzen baditu, SPKLren 201. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren % 50.

d) Azpi kontratistekiko betebeharrak ez betetzea

SPKLren 217. artikuluan xedatutakoa gorabehera, kontratistak azpikontratistekin dituen betebeharrak betetzen ez baditu, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren % 50.

27. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Obra-kontratua suntsiarazteko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211. eta 245. artikuluetan daude ezarrita.

28. KONTRATUAREN LAGAPENA

Kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga diezazkioke kontratistak, baldin eta:

a) lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak erabakigarriak izan ez badira kontratua hari adjudikatzeko,

b) merkatuan lehiaketa benetan murrizterik ez badakar lagapenak,

c) kontratistaren ezaugarrien aldaketa nabarmenik ez badakar lagapenak, eta

d) SPKLren 214.2 artikuluan jasotako baldintza eta betekizunekin bat badator lagapena.

29. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak prestazioaren gauzatze partziala hitzartu dezake hirugarrenekin. Ezinbestekoa izango da asfaltatze lanak kontratistak burutzea. Nolanahi ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 215. eta 216. artikuluetan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu azpikontratazio horrek.

IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

30. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Agiri honetan oinarrituta egingo den kontratua administrazio-kontratua izango da, eta dokumentu honek eta berari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoak arautuko dute. Horretan xedatuta ez dagoen guztiak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoa bete beharko du, eta, lege horren kontra ez doan guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsia), maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua (zeinak partez garatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea) eta administrazio publikoen kontratazioan aplikatzekoak diren kasuan kasuko gainerako arauak.

Administrazio-baldintza partikularren agiri hau eta espedienteari atxikitako gainerako agiriak bat etorri ezean, agiri honetan xedatutakoak izango du lehentasuna.

31. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Administrazioari honako eskumen hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, kontratua egikaritzeko dauden zalantzak argitzea, kontratua interes publikoko arrazoiengatik

aldatzea, kontratuaren egikaritzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna zehaztea, kontratuaren egikaritzea etetea, kontratua suntsiaraztea erabakitzea eta suntsiarazpenaren ondorioak zehaztea; betiere SPKLn eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan eta haietan jasotako baldintza eta ondorioak betez.

32. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu; administrazioaren bideari amaiera emango diote organoaren erabakiek, eta zuzenean aurkaratu ahal izango dira administrazioarekiko auzien jurisdikzioan. Horrek ez du kentzen, hala badagokio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututako edozein errekurtso jarri ahal izatea.

ERANSKINEN ZERRENDA

I. eranskina.-	Lizitazio elektronikorako jarraibideak.
II. eranskina.-	Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko datuak.
III. eranskina.-	Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB) betetzeko jarraibideak.
IV. eranskina.-	Aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoaren eredua.
V. eranskina.-	Bitartekoak atxikitzeko konpromiso adierazpenaren eredua.
VI. eranskina.-	Enpresa taldeari buruzko adierazpen eredua.
VII. eranskina.-	Konfidentzialtzat jotako dokumentu eta datuei buruzko adierazpen eredua.
VIII. eranskina.-	Eskaintza ekonomikorako eta formula bidez ebaluatzeko eskaintzako beste elementuetarako eredua

I. eranskina.

LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

I.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA

1. Kontratazio prozeduretako izapideetarako lizitazio elektronikorako sistema erabiltzeko beharkizunak

1.1. Administrazio beharkizunak:

a) Ziurtagiri digital bat izatea, lizitazio elektronikorako sisteman identifikazio eta sinadurarako bitarteko gisa onartuta dagoena. Gaur egun, honako hauek dira ziurtagiri elektroniko horiek:

- Izenpe (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria)
- FMNT (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria)
- Nortasun agiri nazional elektronikoa
- Camerfirma (entitatea, herritarra)

Baimendutako ziurtagirien zerrendak aldaketak izan ditzake. Lizitazio elektronikorako sistemara sartzeko atariak momentu oro baimendutako ziurtagiri elektronikoen zerrenda eguneratua erakutsiko du.

Entitate motako ziurtagiria berritzerik ez badago ere, posible izango da horiek erabiltzea iraungi bitartean edo horiek baliogabetu arte.

b) Egoera hauetako batean egotea:

a) Alta emanda egotea eta indarrean dagoen ziurtagiria izatea Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan

b) Alta emanda egotea lizitazio elektronikorako aldi baterako gaikuntzako sisteman

c) Bi operadore ekonomiko edo gehiago elkarrekin aurkezten badira, formalki aldi baterako enpresa elkarte gisa (ABEE) eratzeko konpromisoa hartuta, ABEEaren konpromisoa aldi

baterako gaikuntzako sisteman erregistratuta egon beharko da.

1.2. Beharkizun teknikoak:

Elektronikoki lizitatzeko beharkizun teknikoei buruzko informazioa lotura honetan aurkitu daiteke: https://www.contratacion.euskadi.eus/informazio-orokorra-lizitazio-elektronikoa/w32-kpelicel/eu/

2. Lizitazio elektronikoko sistemara sartzeko modua:

Sistema erabili ahal izateko, atari honetan sartu beharko da: https://www6.euskadi.net/lizitazioa/

3. Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko zerbitzua: 945 016 298

II.- JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOAK

Espediente honi lotutako jakinarazpen eta komunikazio guztiak bitarteko elektronikoz egingo dira, KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN/CONTRATACIONPUBLICA EN EUSKADI plataforman dagoen lizitazio elektronikoko sistemaren bidez.

Jakinarazpena eskuragarri jarri eta hamar egun naturalen epean hartzaileak onartu ez badu edo uko egin badio, iraungitzat joko da, eta betetzat joko da jakinarazteko izapidea.

II. eranskina.

JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK

IDENTIFIKAZIO DATUAK

NAN/IFZ

1. abizena, 2. abizena, izena

☐ Norberaren izenean
☐ Ordezkatutako enpresaren izenean
Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFK:

** Aldi baterako enpresa elkartea bada, eredua egokitu egin behar da, aldi baterako enpresa elkartean izango den enpresa bakoitza ordezkatzen duten pertsona guztiei buruzko datuak gehitzeko*

Kontratua esleitzeko prozedurari buruzko jakinarazpen eta komunikazioen ondorioetarako, **ADIERAZTEN DU(TE)**:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Antsorregi -Arriola bide asfaltatzeko lanak **2021IKON0002**

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoetarako datuak honako hauek dira [1]:

[1] *Hainbat enpresak esleipendun izanez gero formalki aldi baterako enpresa elkarte gisa eratzeko konpromisoa aurkezten badute, jakinarazpen eta komunikazioetarako helbide bakar bat aurkeztu beharko dute.*

Itziarko
Auzo Udala

2021IKON0002

JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOETARAKO DATUAK

Kalea, plaza, hiribidea...	Zk.	Solairua	Eskua

Udalerria	P.K.	Probintzia

Telefono finkoa	Mugikorra

Abisuetarako helbide
Hartzailea:
Jakinarazpena edo komunikazioa jasotzeko Euskar ☐ Gaztelani ☐

Tokia, data eta sinadura

III. eranskina

EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA (EKAB) BETETZEKO JARRAIBIDEAK

1.- Lizitatzaileak EKABa aurkeztea hark lizitazio prozedura honetan parte hartu ahal izateko klausula agiri honetan zehazten diren AURRETIAZKO BEHARKIZUNAK BETETZEN dituelako aurretiazko froga da.

Enpresen egoera finantzarioari, gaitasunei eta kontratazio publikorako prozedura batean parte hartzeko egokitasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena da Europako Kontratazio Agiri Bakarra EKAB, eta lizitatzaileek agiri hori aurkeztu beharko dute, SPKLren 140. artikuluarekin eta agiriaren formulario normalizatua eta betetzeko jarraibideak ezartzen dituen urtarrilaren 5eko 2016/7 Batzordearen Betetze Erregelamenduarekin (EB) bat.

Kontratazio organoak bere ahalmenak erabili ahal izango ditu, artxibo elektroniko bakarrean aurrez aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatzeko, horretarako beharrezko frogagiriak aurkeztea eskatuz, 39/2015 Legearen 69. artikuluak jasotzen dituen baldintzetan betiere.

Edonola ere, lizitatzaileak EKAB aurkezten badu konpromiso bat hartzen du bere gain, kontratuaren adjudikazioa aldekoa badu EKAB agiriak ordezkatzen dituen frogagiriak aurkeztekoa.

2.- EKABen formulario normalizatua.

EKABen formulario normalizatua lizitatzaileen eskura dago honako helbide elektroniko honetan:

https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espd-web/filter?lang=es.

3.- Jarraibideak.

Dokumentuan adierazten diren beharkizun guztiak bete egin behar dira, edonola ere, lizitazio epearen azken egunean, kontratatzeko galarazpenak izan ezik, horiek kontratua formalizatu arte segitu behar baitute gutxienez. Administrazioak egiaztapenak egin ahal izango ditu, betiere, prozedurako edozein unetan.

Adierazpenak behar besteko ahala duen batek sinatuta egon behar du.

Kontratuaren gaia **sortatan zatitzea** aurreikusten denean, baldin eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioari edo tekniko eta profesionalari buruzko beharkizunak sortatik sortara aldatzen badira, EKAB bakar bat aurkeztuko da kaudimen beharkizun berberak aplikatzen zaizkion sorta bakoitzeko edo sorta talde bakoitzeko.

Eskatzen den kaudimena edo bitarteko atxikipena kanpo bitartekoz betetzen badu lizitatzaileak, honek bere EKAB aurkeztu beharko du, eta EKAB bana, gainera, kontratua betetzeari atxikitako bitarteko bakoitzeko.

Enpresa batzuk **aldi baterako elkartea** eraturik aurkezten badira, elkartekide bakoitzak bere nortasun, gaitasun eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, eta guzti-guztiek dagokien EKAB formulario normalizatua aurkeztu beharko dute. EKAB formulario normalizatuaz eta ABEEa eratzeko konpromisoaz gain, edo, hala dagokionean, behin-behineko bermearen frogagiriaz gain, artxibo elektronikoan lizitatzaileen adierazpena jaso beharko da, klausula agiri honetako VI. eranskineko ereduarekin bat, enpresa talde batekoak diren ala ez adierazi beharko baitute horretan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen Erregistroan edo Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan **izena emanda** dauden **enpresek** ez dute inskripzio horretan dagoeneko gaurkotuta dituzten datuak zertan eman, betiere zertzelada hori adierazten bada EKABen formulario normalizatuan. Edonola ere, lizitatzaileak berak ziurtatu behar du zer datu dauden egiaz jasota eta gaurkotuta eta zer datu ez. Eskatutako datu edo informazioetakoren bat ez dagoenean aipatutako lizitatzaileen erregistroetan jasota, edo horietan gaurkotuta ez badago, formularioa betez eman beharko da datu edo informazio hori.

EKAB formulario normalizatuaren erabilerari dagokionez, lizitatzaileek ondoko **dokumentu** hauek **kontsultatu ahal izango dituzte**:

- 2016/7 zk. Erregelamendua (EB), web honetan eskuragarri dagoena:

https://www.boe.es/doue/2016/003/L00016-00034.pdf

- Estatuko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordearen gomendioa, 2016ko apirilaren 6koa, helbide honetan eskuragarri dagoena:

https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2016-3392

4.- Prozedura honetarako formulario berezia duen XML artxiboa kontratatzailearen profilean dago.

IV. eranskina

ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena NAN/IFZ

☐ Norberaren izenean
☐ Ordezkatutako enpresaren izenean
Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFK:

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena NAN/IFZ

☐ Norberaren izenean
☐ Ordezkatutako enpresaren izenean
Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFK:

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena NAN/IFZ

☐ Norberaren izenean
☐ Ordezkatutako enpresaren izenean

Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFK:

** Eredua egokitu behar da, esleipendun gertatuz gero aldi baterako enpresa elkartean izango den enpresa bakoitza ordezkatzen duten pertsona guztiei buruzko datuak gehitzeko*

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Antsorregi - Arriola bidea asfaltatzeko lanak
2021IKON0002

ADIERAZTEN DUTE

1. Konpromisoa hartzen dutela aldi baterako enpresa elkarte gisa formalki eratzeko, erreferentziako kontratuaren adjudikaziodun gertatuz gero, honako partaidetza portzentaje honekin:

Enpresaren izena	%

2. Honako hau izendatzen dutela enpresa elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar, kontratutik ondorioztatzen diren eskubideak baliatu eta obligazioak betetzeko behar beste ahalmenez:

Izen- abizenak: NAN:

Tokia eta data:

Enpresaren izena	*Sinadura*
Enpresaren izena	*Sinadura*
Enpresaren izena	*Sinadura*

V. eranskina

BITARTEKOAK ATXIKITZEKO KONPROMISO ADIERAZPENAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena NAN/IFZ

☐ Norberaren izenean
☐ Ordezkatutako enpresaren izenean
Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Antsorregi - Arriola bidea asfaltatzeko lanak 2021IKON0002

ADIERAZTEN DU

Konpromisoa hartzen duela kontratua egikaritzeko behar diren bitarteko hauek atxikitzeko:

☐ Giza baliabideak atxikitzeko konpromisoa:

☐ Bitarteko materialak atxikitzeko konpromisoa:

Tokia, data eta sinadura

VI. eranskina

ENPRESA TALDEARI BURUZKO ADIERAZPEN EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena NAN/IFZ

☐ Norberaren izenean
☐ Ordezkatutako enpresaren izenean
Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Antsorregi - Arriola bidea asfaltatzeko lanak
2021IKON0002

ADIERAZTEN DU

Ordezkatzen duen enpresa:

☐ BADAGOELA Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan aurreikusitako egoeraren
☐ EZ DAGOELA Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan aurreikusitako inolako

Erantzuna baiezkoa bada:

☐ EZ du kontratuaren adjudikazioan parte hartzen, ordea, banakako proposamena aurkezten duen talde bereko beste inolako enpresarekin batera, ezta Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan jasotako kasuren
☐ BAI, kontratuaren adjudikazioan parte hartzen du banakako proposamena aurkezten duten talde bereko beste enpresa batzuekin edo Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan jasotako kasuren batean

IFZ/IFK	Sozietate izena

Tokia, data eta sinadura

VII. eranskina

KONFIDENTZIALTZAT JOTAKO DOKUMENTU ETA DATUEI BURUZKO ADIERAZPEN EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena NAN/IFZ

☐ Norberaren izenean
☐ Ordezkatutako enpresaren izenean
Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Antsorregi – Arriola bidea asfaltatzeko lanak 2021IKON0002

ADIERAZTEN DU

Sekretu tekniko edo komertzialekiko lotura dela eta, konfidentzialtzat jotzen dituela ondoren aipatzen diren eskaintzako **dokumentu, informazio eta alderdiak**: [2]

1.

2.

3.

[2] Konfidentzialtasun adierazpenak ezingo ditu hartu ez enpresak aurkeztutako dokumentazio guztia ez eskaintza teknikoko egiaztapen dokumentazio guztia. Kasu horretan, edo adierazpen horri neurri desegokia ematen bazaio, kontratazio organoak zehaztuko du zer datu edota dokumentu jo behar diren konfidentzial. Enpresak ez badu berariaz konfidentzial jotzen daturik edota dokumenturik, ulertuko da aurkeztu dituen datu edota dokumentuetan ez dagoela konfidentziala den batere. Era berean, eskaintzak aurkeztu ondoren ez da onartuko aurkezpenaren unean konfidentzial jo ez den daturik konfidentzial jotzea.

.....

Datu horiek konfidentzialak dira arrazoi hauengatik:

1.

2.

3.

.....

Tokia, data eta sinadura

VIII. eranskina

ESKAINTZA EKONOMIKORAKO ETA FORMULA BIDEZ EBALUATZEKO ESKAINTZAKO BESTE ELEMENTUETARAKO EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena NAN/IFZ

☐ Norberaren izenean
☐ Ordezkatutako enpresaren izenean
Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Antsorregi - Arriola bidea asfaltatzeko lanak
2021IKON0002

ADIERAZTEN DU

1. Ezagutzen dituela eta oso-osorik onartzen dituela, proiektua, proiektuaren edukia, kontratuaren oinarri diren pleguak eta kontratu hau eraenduko duten gainerako dokumentu guztiak.
2. Kontratuaren xedea gauzatzeko konpromisoa hartzen duela honako prezio eta epe hauetan:

1.- <u>Eskaintza ekonomikoa</u>

Letratan *Zenbakitan*

Itziarko
Auzo Udala

PREZIOA	_____ euro	_____ €
+ %21 BEZ	_____ euro	_____ €
GUZTIRA	_____ euro	_____ €

2 Epea

_____ **aste, eta** _____ **egun**

Tokia, data eta sinadura